

Nafarroako euskara eta bere euskalkiak

NAFARROAKO GOBERNUA
Hezkuntza Departamentua
Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Argitalpenaren Arduraduna: FERMÍN VILLANUEVA FERRERAS

Edizioa: ELEA
ARGAZKIAK NAFARROAKO GOBERNUAREN TURISMO ZERBITZUAK EMANAK

I.S.B.N.: 84 - 235 - 2374 - 8

Lege gordailua: NA - 1.101 / 2003

Ilustrazioak: ELEA

Diseinua eta Maketazioa: ELEA

Inprimatzaila: Gráficas Lizarra, S.L.

Sustatzailer eta banatzailea:
Nafarroako Gobernuaren Argitarapen Fondoa
Navas de Tolosa k.,21
Tf.: 948 427 121 - Fax: 948 427 123
Posta elektronikoa: fondo.publicaciones@cfnavarra.es
www.cfnavarra.es/publicaciones
31002 Iruña

Aldaera dialektalak dira, besteak beste, hizkuntzen aberastasunaren eta bizitasunaren adierazgarri.

Aldaera dialektalek bere hizkuntzari aberastasuna eta izaera ematen dizkiote hiztunarengandik hurbilago bihurtuz eta hizkuntzaren beraren garapena bultzatuz.

Euskararen kasuan, dudarik gabe esan daiteke Nafarroa dela dialektoen, hots, euskalkien lurralde nagusia, bertan, bizkaiera izan ezik, gainerako guztiak biltzen baitira.

Horregatik gure Komunitateak euskalkien garapena begiratzea aurreikusi du eta Euskararen Legearen 1.3 artikulua modu zehatzean eskaini die.

Horregatik Nafarroako Gobernuak euskalkiak babesteko eta garatzeko zenbait ekimen bultzatu ditu aintzindaritza hartuz.

Orain aurkezten dugun argitalpen honen xedea da Nafarroako euskalkiak, ezaugarriak eta hedapena ezagutaraztea, XIX. mendean Luis Luciano Bonaparte printzeak egin zituen azterlanak oinarritzat harturik.

Dibulgazio izaera duen arren, argitalpenak zehazki eta modu atseginean euskalkien ezaugarriak aztertzen ditu, kapitulu berezi batean Nafarroako Euskararen Fonotekaren proiektua azaldu eta gai honetan sakondu nahi dutenendako bibliografia txiki bat ere eskaintzen du.

Honekin guztiarekin espero da aurreikusitako helburua erdiestea, hau da, gure lurraldeko euskararen ezagutza baita erabilera handiagoa eta hobea ahalbidetzea.

1. Euskalkiak eta dialektoak zer diren

Hizkuntza eta dialektoa.

Hitz tekniko eta zehatzak izan arren, hizkuntza eta dialektoa, hizketa arruntean ere askotan erabiltzen ditugu, eta ez beti egin behar genukeen bezala. Jende askok hizkuntza hitzarekin nazioarteko hizkuntza handia dela adierazi nahi du (ingelesa, gaztelera...), eta dialekto hitzarekin, berriz, ustez prestigio gutxi edozein hizkuntza, dialekto edo hizkera.

Baina, bestelako nabardurak zehaztu gabe, hizkuntza eta dialektoaren arteko harremana ez da handitasunaren arabera neurtzen. Dialekto baten definizioa beste zerbaitekiko egiten da. Gehienetan araua markatzen duen hizkuntza

aldaerarekiko, orotariko hizkuntzarekiko edo literatur hizkuntzarekiko. Oro har, hizkuntza batek dituen dialektoei buruz mintzatzen gara.

Dialektoen arteko diferentziak objektiboki zehazteko isoglosak erabiltzen dira. Isoglosak hizkuntza gertaera edo ezaugarri baten muga geografikoa aditzera ematen duten marra idealak dira. Isoglosa batek, esate baterako, irudikatuko digu zein den Nafarroan *erran* eta *esan* hitzen banaketa geografikoa, edo zehaztuko digu ergatibo plurala *-ak* edo *-ek* non erabiltzen den.


Hizkuntzak eta dialektoak

Euskara hizkuntza bakarra da,

baina leku batetik bestera badira hitz egiteko era diferenteak. Euskararen dialekto edo euskalkiak dira. Gauza bera esan daiteke gainerako hizkuntzei buruz: hizkuntza bakarra izan arren gehienetan dialekto batzuk bereiz daitezke.

Dena den, batzuetan oso zaila da esatea praktikan non dagoen bi hizkuntzaren arteko muga, eta are zailagoa da zehaztea non dagoen bi dialektoen artekoa. Gainera, batzuetan, ez dago adostasunik dialektoen mugak eta izenak fin-katzerakoan.

Dialektoak Italian



Dialektoak errealitate bat dira ezagutzen diren hizkuntza gehienetan, nahiz eta batzuetan besteetan baina nabarmenagoak izan, italieraz bezala. Hizkuntzalari batzuen ustez italiera dialekto gehien dituen hizkuntzetako bat da. Iturria: R. SALVUCI



Isoglosei esker dialektoen arteko diferentziak neurtzen dira. Hiztegi, fonetika eta antzeko ezaugarrietan oinarritzen dira. Mapa honetan Iruñerrian ematen zen *-ak*, *-ek* ergatibo pluralaren erabilera aditzera ematen duen isoglosa.

Iturriak

Hizkuntza eta bere dialektoak ongi ezagutzeko hainbat iturri erabili behar ditu hizkuntzalariak.



Hizkuntza bizia.

Momentu batean eta leku batean hitz egiten den hizkuntza bat ezagutzeko hitz-tunungana jo behar da. Ikerketa sinkronikoa da, momentu jakin batean hitz egiten den hizkera zehatz-mehatz deskribatzea.




Agiri idatziak.

Baina ezagutu nahi bada leku batean orain dela urte edo mende batzuk hitz egiten zena agiri idatzietara jo beharko da. Ikerketa diakronikoa egiten dugu agiri hauek leku bereko gaurko hizkerarekin alderatzen baditugu.



Toponimia.

Hizkuntza batzuetan, agiri idatziak oso eskasak direnean, euskara kasu, leku izenek aparte garrantzia dute. Kasu askotan leku izenak dira hizkuntza bateko lehenengo lekuko idatziak eta, batzuetan, ia bakarrak.



Nafarroako Gobernuak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak 1969tik bildu ditu euskararen gaineko ikerketa zientifikoak.

Nafarroan nola erabili diren.

Nafarroako euskara hobeki ezagutzeko arestian aipatu iturri guztiak erabili dira, neurri berean ez bada ere.

Nafarroako euskalkiak deskribatzeko lan garrantzitsu eta zehatzak egin dira azken urteotan. Euskalki batzuk desagertu dira eta beste batzuk desagertzeko zorian daudelako.

Ahozko hizkeraz den bezainbatean, Nafarroako Gobernu Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eratu duen Nafarroako Euskararen Fonotekak ikertzaileei lana erraztuko die, bertan ia 2.000 orduko grabaketak entzungai daudelako. Horietako batzuk, gainera, gaur egun desagertu diren euskalkietakoak dira.

Testu idatziak neurri apalagoan erabili dira oso gutxi direlako eta gehienetan gai erlijiosozkoak direlako, non hizkera herritarren hainbat eta hainbat ezaugarri nekez isla zitekeen.

Toponimiari etekin handia atera zaio eta leku izenei esker datu interesgarriak eskuratu dira gaur egun ez hiztunik eta ez tesurik ez dagoen eskualdeetan.

2. Euskararen dialektologia Nafarroan

Lehenengo testigantzak.

Gauza jakina da euskara ez dela berdin mintzatzen leku guztietan. Are gehiago, aspaldidanik nabarmendu izan da ondo-ondoan dauden herri batetik bestera diferentziak ere badirela.

Dialektologia ez da garatuko XIX. mendera heldu arte, baina badira hori baino lehenagoko testigantza interesgarriak, hala nola Axular, Juan Beriain edo Agustin Kardaberazek:

Axular nafarrak horrela ikusten zuen egoera XVII. mendean:

“Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzate molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian. Nafarroa garaian,

Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekhan. Batak erraiten du behatzea, eta bertzeak so egitea. Batak haserretzea eta bertzeak samurtzea. Batak ilkitzea, bertzeak ialgitzea. Batak athea, bertzeak bortha. Batak erraita, bertzeak esatea. Batak irakurtzea, bertzeak leitzea. Batak liskartzea, bertzeak ahakartzea. Batak hauzoa, bertzeak barridea. Batak aitonen semea, bertzeak zalduna. Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzate ere, zeren erresumak baititutze diferent”.

Baina euskaraz trebatzen zenak eta euskaraz idazten zuenak bazekien euskara bat zela eta lurralde guz-

tietako euskaldunek elkar ulertzeko arazo handirik ez zutela. Horrela pentsatzen zuen aita Agustin Kardaberazek 1761. urtean:

“Itsu-itsuan askok esan oi du, euskera asko dirala, edo erri bakoitzean bere euskara dala; baña zer dioten ez dakite. Ezta ori egia: euskera bat da. Euskara bat onetan, egia da, dialekto edo izkera asko dirala. Autore grabeetan askotan irakurten det griegoan bost dialekto zira-dela: Atikoa, Aelikoa, Dorikoa, Jonikoa ta Komuna edo guzieta. Onela bada, Frantzian, Nafarroan, Bizkaian, Araban ta Gipuzkoan, beren izkerak, bakoitza bere erara dira: ta ori gauza berria ezta.”

Luis Luziano Bonaparte



Luis Luziano Bonaparte

Nor izan zen

Thorngrove (Ingalaterra) 1813 – Fano (Italia) 1891
Napoleon I.aren iloba eta euskaltzale eta hizkuntzalari handia. 1856 eta 1869 urte bitartean bost bidaia egin zituen euskararen berri izateko eta hizkuntza hau ikertzeko. Helburu hau hobeki betetzeko bertako kolaboratzaile-sare mardula osatu zuen. Nafarroan ere franko izan zituen eta horietako 33ren izenak ezagutzen dira. Gainera, Bonaparte printzearen inguruan kolaboratzaile gehiago ere izan zirela pentsatzekoa da. Laguntzaile horietako batzuek, Bonaparteren akuiluari esker, euskarazko lan interesgarriak burutu zituzten.

Zer egin zuen

Euskaraz mintzo ziren lurralde guztiak bisitatu zituen Bonapartek eta ordura arte egindako euskararen maparik zehatzena burutu zuen.

Gainera garai horretan Nafarroako euskararen hedadura oso bestelakoa zen gaurkoarekin konparatuz. Bonapartek Iruñerri osoko herrikka guztiak euskaldun aurkitu zituen, baita Gares eta Barasoain bezalako herriak ere.

Bonapartek egindako euskalkien sailkapena gaur egun erabiltzen da eta hori bere lanaren kalitateaz mintzo zaigu.

Lau sailkapen burutu zituen erabatekoa taxutu baino lehen, askotan garbiegi ez zegoelako non paratu euskalkien arteko mugak.

Nafarroari dagokionez dudarik handienak Burunda, Etxarri-Aranatz, Zaraitzu eta Aezkoako euskalkiekin izan zituen.

Bere azkeneko sailkapenean honako euskalkiak zehaztu zituen Nafarroan: Gipuzkera (Burunda eta Aranatz-Ergoienetan), lapurtera (Zugarramurdi eta Urdazubi), behe nafarrera (Zaraitzu, Aezkoa eta

Luzaide), zuberera (Erronkaria), hegoaldeko goi nafarrera (Iruñerria, Estellerría, Urraul, Erroibar, Esteribar...) eta Iparraldeko goi nafarrera (gainerako Nafarroa eta Oiarzun, Hondarribia, Lezo eta Irun).

EUSKADI

FRANTZIA

Gipuzkera

Gipuzkera

Iparraldeko goi nafarrera

- Arakil
- Araitz
- Gipuzkoakoa
- Bortziriak
- Ultzama
- Baztan

Hegoaldeko goi nafarrera

- Ekialdekoa
- Izarbeibar
- Mendebaldekoa

Mendebaldeko behe nafarrera

- Luzaide (Baigorri)
- Aezkera

Ekialdeko behe nafarrera

- Zaraitzuera

Lapurtera

- Urdazubi, Zugarramurdi (Sara)

Zuberera

- Erronkari



Luis Luziano Bonaparteren euskalkien mapa asko zabaldu da. 1863. urtean egindako mapa honetan ikusten den bezala, garai horretan euskaraz hitz egiten zen lurraldea gaurkoa baino askoz ere zabalagoa zen.

2. XX. mendeko dialektologia Nafarroan

XX. mendean, Luis Luziano Bonaparteri esker neurri handi batean, baina baita euskarak agertzen zuen egoera larriak bultzatuta ere, lan asko garatuko dira dialektologia arloan. Letra handitan idatziko ditugu Arturo Kanpion, Resurrección María de Azkue eta Koldo Mitxelena izenak, eta baita beste askorenak ere, lan interesgarri eta zientifikoen egileak izan zirelako: Damaso de Intza, Aingeru Irigaray....



Arturo Kanpion
Iruña 1854 – Donostia 1937


Idazle, historialari, eta hizkuntzalari. Bere begien aurrean Nafarroan ematen ari zen euskararen galerak biziki mintzen zuen eta horregatik euskararen aldeko hainbat mugimendu eta elkarteren sortzaile eta sustatzailea izan zen: **Nafarroko Euskarazko Elkargoa-Asociación Euskara de Navarra elkargoa edo Euskaltzaindia**, esate baterako. **Euskaraz ere zerbait idatzi zuen.**

Obra nagusiak:
Gramática de los cuatro dialectos vascos.



Resurrección María de Azkue
Lekeitio 1864 – Bilbao 1951.

Resurreccion Maria Azkue hiztegiilea, gramatikagilea eta etnologia izan zen. Gainera literaturan eta musikan ere oso trebea izan zen. Hiztegiile bezala lan handia burutu zuen: *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906). Bertan zehazten da zein euskalkitan erabiltzen den hitz bakoitza. Bere *Cancionero Popular Vasco* eta *Euskalerriaren Yakintza* bezalako lanetan jaso zituen ohiturak, kanta, esaerak, kon-dairak... Gainera Aezkoako euskarari buruzko lan interesgarri bat idatzi zuen: *Aezkera edo Petiriberroko inguruetakoko mintzaera*.



Koldo Mitxelena
Errenteria 1915-1987.

Euskarari buruz informazio gehien izan duen hizkuntzalari izan da. Bere lanei esker hobeki ezagutu dugu nolakoak ziren euskara zaharra eta euskalkiak, eta zein izan den euskararen historia. Gainera gaur egun erabiltzen den euskara batuak asko zor dio hizkuntzalari honi.

Obra nagusiak:
Fonética histórica vasca.
Sobre el pasado de la lengua vasca.
Orotariko Euskal Hiztegia.

2. XX. mendeko dialektologia Nafarroan: Gaur egun

Mendez mende Nafarroan hitz egin diren euskalkiak aldaketa handiak eta itzulezinak jasaten ari dira.

Batzuk desagertu dira (erronkaria) edo desagertzeko zorian daude (zaraitzuera)...

Gaztelaren indarraren aurrean desagertu dira batzuetan. Besteetan, berriz, eskoletan, komunikabideetan eta arlo kulturean erabiltzen den euskara jaso eta bateratuaren aurrean euskalkiak batuz doaz.

Hau dela eta, inoiz baino premiazkoak dira gaurko hizkera bizien deskripzioak. Zorionez gure artean badira euskal dialektologian espezialistak diren hizkuntzalariak

Iñaki Camino
Aezkerari buruzko doktoretza tesia burutu du eta Nafarroako dialektologiari buruzko lan orokorrak burutu ditu.

José Luis Erdozia
Sakanako euskarari buruzko lanak idatzi ditu. Esate baterako *Sakana erdialdeko Euskara*, 2002. urtean argitaratua.

Ana María Echaide
Hizkuntza inkestak burutu zituen euskaraz mintzo ziren eskualde guztietan eta liburu batean argitaratu zituen: *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-67)*.

Orreaga Ibarra
Ultzama eta inguruetako euskarari buruzko doktoretza tesia burutu zuen. Gainera lan sakonak garatu ditu Erroibar eta Esteribarko hizkerei buruz.

Patxi Salaberri
Toponimia eta testu zaharrak ikertuz euskara galdu duten zenbait eskualdetako euskalkiak ikertu ditu: Eslaba aldea, Artaxoa, Ameskoa...

Pello Salaburu
Baztango euskarari buruzko lan sakona burutu du baztanera eta hizkuntzalaritza orokorra lotuz.

José María Satrustegi
Testu zahar asko aurkitu eta argitaratu ditu. Nafarroako herri euskaldunetan grabazio asko burutu ditu. Nafarroako *Euskararen Fonotekan* ia 400 grabazio utzi ditu gai honetan interesa agertzen dutenentzat.



Koldo Zuazoren sailkapena

Egiten ari diren lan hauei esker euskarari buruzko informazio berri eta zehatza eskuratzen ari gara.

Hori dela eta, Koldo Zuazo dialektologoak euskalkien beste sailkapen bat aurkeztu berri du, dialektologoaren artean abegi ona izan duena. Bonapartek egin zuen sailkapenetik oso urruti ez badago ere diferentzia esanguratsuak ere baditu, euskalkien izenetan esate baterako: Mendebalekoa, Erdialdekoa, Nafarrera, Nafar-Lapurtera, Ekialdeko Nafarrera eta Zuberera.



Mapa honetan Koldo Zuazoren sailkapena aditzera ematen da. Horrekin batera euskalkien gaurko banaketa ikusten da.

3. Nafarroako euskalkiak. Lehena, oraina eta geroa



Euskararen indarra. Euskararen atzerakada geografikoa.

Euskararen hedadura geografikoaren gaineko azterketak egin direnean gehienetan atzerakadaren nondik norakoak azpimarratu izan dira: mendez mende, are urtez urte ere; ibarrez ibar eta herriz herri... Hots, euskararen heriotzan jartzen zen arreta. Hau dela eta, euskararen irudia franko ezkorra zen, beti atzeraka eta gutxietsitako hizkuntza baten irudi negargarria eskainiz.

Dena den, ikuspegi beltz xamar honen aurrean argiagoa den beste bat proposatu da: euskararen indarrari begiratzen diona, eta gaur egun arte mendez mendeko etenik gabeko transmisioa azpimarratu nahi duena.

Ez litzateke ahaztu behar 1982. urtera arte euskarak ez duela ezagutza ofizialik izan Nafarroan. Horrek esan nahi zuen euskarak ez zuela lekurik ez Nafarroako administrazioan, ez eskoletan, ez inon, elizetan izan ezik, eta hemen ere ez beti hein berean.

Hala ere, euskara bizirik dago Nafarroan. Eta horre-

la da euskaldunek euskararekiko atxikimendua erakutsi dutelako, azken finean euskara nafar euskaldunentzat indarrean dagoen komunikatzeko tresna garrantzitsua delako.

Euskalkien osasuna

Nafarroan euskaraz hitz egiten da. Baina ez leku guztietan, eta ez intentsitate berean mintzatzen den eskualdeetan. Ondorengo mapan koloreen bidez adierazten da Nafarroako euskalkien osasun maila.

Eskualde batzuetan euskara oso osasuntsu edo osasuntsu dagoela esan daiteke, nahiz eta aipatu eskualdeetan diferentziak izan herri batetik bestera. Beste batzuetan euskaraz hitz egiten da, baina adineko lagunek hitz egiten dute gehien bat, baina ez gazteagoek, etxean ez dutelako euskara ikasi. Eskualde horietako leku askotan haur askok euskaraz ikasten dute.

Badira bestelako eskualdeak ere. Hauetan euskalkia jada ez da entzuten herrietan, hain zuzen ere, bertako hizkerak eta euskalkiak hil hurren daudelako. Hitzun gutxi batzuek dakite euskaraz eta horiekin batera itzaliko da euskalkia.

XX. mendean horrela gertatu zen zenbait haranetan, eta baita 1850. urtetik aurrera. Gainera, data horiek baino mende batzuk lehenago euskara galdu zuten eskualdeak badira.

Alabaina, gaur egun badira bestelako euskal guneak Nafarroako hiri nagusietan. Hiri eta herri horietan biltzen dira alde batetik eremu euskaldunetik etorritako euskaldunak eta euskara bigarren hizkuntza bezala edo irakaskuntza zentroetan ikasi dutenak.



Euskararen osasuna.


- Oso osasuntsu edo osasuntsu.
- Bizirik baina belaunaldien arteko etena sumatzen da.
- Hil hurren.
- XX. mendean galdua.
- 1850etik aurrera galdua.
- Hori baino lehen galdua.

Euskara batua eta euskalkia.

Euskara batua eta euskalkia ez dira elkarren etsaiak, oro har, hizkuntza eta dialektoak elkarren lehian ez dauden bezala. Erabilera-eremuak zehaztean datza gakoa. Euskara batuari dagokio euskararen arlo jaso eta idatzia bereganatzea. Hots, euskara batua idatzitari eta erregistro kulturali dagokion bezala, euskalkia ahozko eta familiariko hizkerari dagokio.

Hau horrela izaten da euskaraz, gaztelerez, frantsesez, alemaneraz, ingelesez edo italieraz, eta, azken finean, edozein hizkuntzatan, handi eta txikietan. Ez dugu berdin hitz egiten etxean, eskolan edo epaile baten aurrean, ez behintzat, hizkuntza erregistro diferentek izateko adina kultura badugu.

Euskara batuak bete behar duen papera oraintsu arte gaztelarak bete du. Aldaketa honek euskal hizkuntza komunitatean oso errotua, eta are onartua ere, zegoen hizkuntza desoreka zuzendu behar du, baina, logikoa denez, gisa honetako aldaketak ezin dira egun batetik bestera erabat asimilatu. Horregatik, zalantzarik gabe, urteen eskarmentuak ezarriko du euskalki eta hizkuntza bateratuari dagokien tokia.



Nafarroako euskalkien zuhaitza.

4. Nafarroako euskararen ezaugarri nagusiak

Nafarroako euskararen aniztasuna eta batasuna

Euskararen barrenean, hizkuntza hau oso lurralde zabalean hitz egiten ez bada ere, hainbat euskalki bereizten dira. Gainera, aipatu euskalki horietan azpieuskalkiak eta hizkerak bereiz daitezke. Baina izendapen aberastasun honen aurrean ez ginateke itsutu behar, funtsean errealitate bakar baten agerpen desberdinen aurrean gaudelako: euskara bakar baten aurrean. Horregatik, euskaraz alfabetizatua eta eskolatua dagoenak ez du eragozpen handirik gainerako euskalkietako hiztunekin hitz egiteko, berdin diola bizkaitarrak ala zuberotarrak izan.

Arestian deskribatutako egoera, inolako zalantzarik gabe, are argiagoa da Nafarroan. Nafarroako euskalkien aniztasunaren atzean (bederatziz euskalki argitalpen honetan jarraitzen den sailkapenaren arabera) azpimarratzekoa da Nafarroako euskal dialektoen artean antzematen den hizkuntz batasuna. Euskalkien artean ageri diren desberdintasunak benetan txikiak dira, eta bakarrik Burunda eta Erronkariko hizkerak azaltzen dute nortasun berezia.



Nafarroako euskalkiak

Euskalkiak, hizkuntzak bezala, mendeen joan-etorrian aldatuz doaz. Animalia eta landareen espezieetan bezala, euskalkiak bilakatuz doaz hizkuntzalaritzan ongi ezagunak diren arau eta gertaeren arabera. Alde batetik badaude euskalki jakin batean sortzen diren berrikuntzak. Hauek, arrakasta izanez gero, lehenengo euskalkian bertan zabalduko dira pixkanaka-pixkanaka, eta gero beste euskalki batzuetara ere zabal daitezke. Beste alde batetik, euskalki batek ondoko euskalki batean sortutako berrikuntza onar dezake. Horrela ulertzen da zergatik muturretan dauden euskalkiek (Erronkari eta Burundera, esate baterako) askotan gelditzen diren berrikuntzetatik at, beren nortasuna gero eta gehiago bereiziz.

Aldaketak mailaz mailakoak izaten dira. Nafarroako zenbait herritan bai *izango* eta bai *izanen* formak erabiltzen dira gaur egun, baina aspaldi ez dela *izanen* bakarrik erabiltzen zuten. Batzuetan diferentzia belaunaldien artekoa da, adineko hiztunek aldaera zaharra erabiltzen baitute eta gazteek, berriz, berrikuntza nahiago dute.

Baldintza soziolinguistikoak ere erabakiorrak suertatzen dira askotan, eta horrela hiztunek hobeki onartzen dituzte ospe handia duen euskalkian sortutako berrikuntzak.

Nafarroako adibideak

Nafarroako euskalkietan ere antzematen da mailaz mailako aldaketa. Orokorrean badirudi Baztan, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkariko euskalkiek lehen harreman handiagoa zutela Frantzia hitz egiten diren euskalkiekin, zihurrenik haien arteko giza harremanak sakonagoak zirelako garai batean (transhumantzia, artzainen arteko biltokiak bortuetako larreetan...) Geroago, hala ere, Nafarroako euskalki nagusira hurbildu ziren, goinafarrera hain zuzen ere, Iruñeak zuen eraginagatik eta hiri honek euskalki hauetako hiztunak erakartzen zituelako bai ekonomia, geografia eta hizkuntza alorretan.

Gaur egun euskalki honek galdu du izan zuen gune eraginkorra, eta Gipuzkoako mugatik hurbil bizi diren hiztunek beren hizkeretan gipuzkerazko aldaerei leku egiten diete gustu askora, euskalki honek oso entzute ona duelako eskualde horietan.

Beste kasu batzuetan euskalki bat erabat isolatua gera daiteke ondoko eskualdetako hizkerak desagertu direlako. Burundako euskara, esate baterako, hurbileneko hizkeretatik hainbat puntutan aldentzen dena, bat zetorren Araba, Ameskua eta Lanan hitz egiten zen itzalitako hizkuntzarekin.

Nafarroako euskalkien ezaugarriak

- 1 Geroaldirako *-en* morfema erabiltzen da, oro har, nahiz eta *-go* erabili Araitz, Larraun eta Sakanako hizkera batzuetan.
- 2 Izan aditzaren 3. pertsona singularrean *dela*, *zela* eta antzekoetan *-e* dago eta ez *-a* (*dala*). Etxarri-Aranatz eta Burundan izan ezik.
- 3 Edun aditzeko orainaldian *dut*, *duzu*, *dugu* formak nagusi dira (*det*, *berriz*, *Sakana aldean erabiltzen da*).
- 4 Baztan-Ultzamatik hasi eta Erronkari bitartean hitzaren eskuinaldetik hasita bigarren silaban egon ohi da azentua.
- 5 Azentua ez da erabiltzen plurala eta singularra bereizteko.
- 6 Aferesiak (*baki* < *ebaki*) eta sinkopak (*atra* < *atera*) oso ohikoak dira
- 7 Goranzko diptongoak usu entzuten dira: *ótswak*
- 8 Erdal *-on* > *-oi* eta *-ion* > *-ioi* bilakaerak Nafarroan *-on* eta *-ion* gorde dira: *kamiona*.
- 9 Harmonia bokalikoa oso hedatua dago: *mutille* < *mutilla*.
- 10 Instrumentalean *-(e)s* dago Nafarroako ia hizkera guztietan.
- 11 Aditz trinkoen iraganaldian *-a* dago hizkera gehienetan: *zagoen*, *zakien* (*zegoen*, *zekien*, *batuan*).
- 12 2. pertsona singularrean *y*-garatu da Nafarroako hizkera gehienetan: *yaiz*.
- 13 N-N-N saileko adizkien pluralgilea *-it*-da eta ez *-zki*-hizkera gehienetan: *ditiot* (*dizkiot batuan*).
- 14 Lexikoan ere badira nafartzat har daitezkeen hitzak edo Nafarroako hizkera gehienetan erabiltzen direnak: *aitaxi*, *amatxi*, *ongi*, *hobeki*, *deus*, *oihan*...



Ondorengo adibideetan Nafarroako muturreko eta erdiko zenbait herriren euskalkiak erkatuko ditugu: Burundakoa, Iruñerrikoa eta Erronkarikoa. Arturo Kanpionek prestaturiko testuak dira.

Erronkari

Gay erdia da. Errega Karlomagno Auritz-berrin dago bere ejerzito guziuiarekin. Eztago goikorik ez izarrik zeurian; urrisaiarat brillatan dei suek mendien erdian; Frankoek kantatan dei irian; otsoek marraka egiten dei Altobiskarrian...

Osinaga (Iruñerria)

Gauerdie da. Karlomano Erregia Auritz-perrin dago bere ejerzito denareki. Ezta illargirik, ta ez izarrik, zeruen; irrutir kusten dire suek mendi erdibetan; Franzesak kantatzen ai dire errian: Altabiskarko inguruetan sentitzen dire otsuen marruak...

Burunda

Gauberdiya da. Karlomano Erregia Auriz-perrin do bere soldaubakin. Ez da ager ez idargirik eta ez izarrik zeru illunian; irruti-ti ikusten dia su aundiyak mendiyen; Franzesak kantaitan ai di erriyan; Altabizkargo inguruban sentitzen dira otsuan...

5. Iparraldeko goi nafarrera

Non mintzatzen den

Gaur egun da Nafarroako euskalkirik hedatuena eta mintzatuena da, nahiz eta historikoki hegoaldeko goi nafarrera izan zen. Gutxi gorabehera 35.000 hiztun ditu Nafarroan, honako herri eta ibarretan: Arakil, Lakuntza, Arbizu, Irañeta, Arruazu, Larraun, Araitz, Bortziri, Imotz, Basaburu Txikia eta Handia, Arano-Goizueta, Leitzza-Areso, Ultzama, Anue, Malerreka, Bertizarana... Nafarroatik kanpora, Irun, Lezo, Oiartzun eta Hondarribian ere euskalki honetakoak dira.

Koldo Zuazok ibar hauetako hizkerak bi euskalkitan banatu ditu Erdialdekoan (Araitz, Larraun, Basaburua, Imotz...) eta Euskara Nafarrean.



Hiztegi erkatua

Iparraldeko goi nafarrera	Batua	Hegoaldeko goi nafarrera
Lotsa	Lotsa	Alkea
Illea	Ilea	Biloa/Illea
Belarrie/bearrie	Belarria	Biarrie
Lañoa	Lainoa	Lañoa
Ordue	Ordua	Ordua/ordue
Burnie	Burdina	Burdina
Ostirela/ortzirela	Ostirala	Ortzilaria/ortzileria
Bost/bortz	Bost	Bortz
Iru	Hiru	Iru
Arratorea/arratoia	Arratoia	Arratoia
Larogei/lautanogei	Larogei	Lauetanogei
Ongi etorri	Ongi etorri	Ongi etorri
Esan/erran	Esan	Erran
Gara	Gara	Gara
Gizon au	Gizon hau	Gizon gau/au

Euskalkiaren ezaugarriak

- 1 *l-ren* atzeko asimilazio bustidura orokorra da: (aditz laguntzaileen ere: *ttuzu < dituzu, ttugu < ditugu*).
- 2 Bokal harmonia (*dirua>dirue, ogia>ogie*) oso hedatuta dago.
- 3 Oso maiz gertatu da aditzek hasierako bokala galtzea (aferesia): (*baki<ebaki*).
- 4 *Joan, jarri, jende...* bezalako hitzetan, hasierako soinuak bai *j-* eta bai *y-* ebakitzen da.
- 5 Euskalki honetan guztian, pluralean ez da bereizten nor eta nork (*-ak/-ek*).
- 6 Iparreko goi nafarreraren eremu handi batean instrumentala *-s* da (batua *-z*).
- 7 Nor-Nori-Nork adizkietan *-it-* pluralgilea erabiltzen da (*ditio, diti...* etab, *batuaz dizkio, dizkit etab*).
- 8 *-n* bukaera duten aditzetan (*egon, izan...*), *-en* erabiltzen da geroaldiko formarako. Herri askotan *-ain, -oin* ebakitzen dira.
- 9 *-ote-* erabiltzen dela *-e-*ren orde: *dietet (=diet), zioten (=zien), zaiote (=zaie)*.
- 10 *-n* bukaera duten zenbait aditzetan *-iten* tankerako aditz izenak osatzen ditu (*-ten* gisara ebakiak), *izatten, ematten, egotten, eramatten*.
- 11 Nor-Nori sailaren lehenaldian (*zitzaion* etab). Ultzama, Imotz eta Sakanan *-ki-* erroa erabiltzen da *-TZA-*ren orde: *zekion/zakion* eta ez *zitzaion*.
- 12 *Nor-nork* eta *nor-nori-nork* sailak nahastea maiz gertatzen da.
- 13 *-lako* kausa atzizkiak *lako(t)z* (eta *-lako*s) aldakiak ditu.
- 14 Eskualde batzuetan *-larik(an)* atzizkiak *-nean* lekutu du bere denbora funtzioetatik.
- 15 Zenbait hitz ekialdekoagoak izaten dira, nahiz eta gehienetan mendebaldeko formekin lehian erabiltzen diren: guti "gutxi", bertze "beste", erran "esan".



Historia eta literatur erabilera

Iparraldeko goi nafarreraren eremu gehiengan (Arakilen, Anue, Atetz eta Ultzama izan ezik) hizkuntzaren transmisio naturala ez da eten.

Euskalki hau aski nabarra da: zenbait tokitako hizkerak asko aldentzen dira besteengandik; Sakanakoa, kasu, oso euskalki berezia baita eta Nafarroako gipuzkeraren antz handikoa.

Iparraldeko goi nafarrerak hutsaren hurrengo erabilera idatzia izan du, erlijiozko literatura narras batez kanpora. Baditu, izan, aspaldi xamarreko lekukotasunak, baina ez dira, ez hurrik eman ere, beste euskalkienekin konparatzekoak, ezta hegoaldeko goi nafarrerarekin ere.

Salbuespena Sebastian Mendiburu da. Idazle hau Gipuzkoako Oiartzun herrian jaioa zen, baina herri horretan iparraldeko goi nafarrera egiten da Luis Luziano Bonaparteren sailkapenaren arabera. Gainera urte askotan misiolari ibili zen Nafarroako herrietan eta berariaz Nafarroako euskaraz idatzi zuen bere obra mardula.

Iparraldeko goi nafarrera

- Gipuzkoakoa
- Araitz
- Arakil
- Bortziriak
- Ultzama



Iparraldeko goi nafarrera

Da gañea, aittu izandut gorostin ori, ta igoal añen zea izaan da, bearrezkoa izân da, txorin zeatik, barrendik pasatzea azie txorik jermintatzeko, bestela ola erorite eztiela ateratzen. Igoal orrengatik ain gutxi ikusten izân da zenbait lekutan da bestetan, berriz, kontzentrazio aundie... kakitten da an aitzen dielako.

Euskara batua

Eta gainera, entzun izan dut gorostien hori, eta agian haginaren zera izanen da, beharrezkoa izanen da, txorien zeratik, barrendik pasatzea hazia txoriek erretzeko, bestela hola erorita ez direla ateratzen. Agian horregatik hain gutxi ikusten izanen da zenbait lekutan eta bestetan, berriz, kontzentrazio handia... kaka egiten eta han aritzen direlako.

Gaztelera

Y además he oído que eso de los acebos, y quizá, lo de los tejos, que será necesario, por eso de los pájaros, que los pájaros tienen que pasarlo por dentro para que germinen. De otra forma caen al suelo y no germinan. Quizá por eso se verán tan pocos en algunos sitios, y tan gran concentración en otros... porque ahí andan haciendo caca.

6. Hegoaldeko goi nafarrera

Non mintzatzen den

Historikoki hauxe izan da Nafarroako euskalkirik hedatuena, mintzatuena eta berezkoena. Hedadura handiena zuen unean, herri eta ibar hauek zituen hegoaldeko muga: Ega ibarra, La Solana, Oteitza, Villatuerta, Zirauki, Mañeru, Gares, Itzarbe ibarra, Artaxoa, Puiu, Orba ibarra, Lerga, Uxue, Galipentzu, Zare, Leatxe, Irunberri, Urraul (herriok guztiok euskaldunak izandakoak).

Bonaparte printzeak Hegoaldeko goi nafarrera izendapena sortu zuen. Koldo Zuazok, berriz, nafarrera deizioa erabiltzen du.



Hiztegi erkatua

Hegoaldeko goi nafarrera	Batua	Baztanera
Alkea	Lotsa	Lotsa/Alkea
Biloa/Illea	Ilea	Ilia
Biarrie	Belarria	Begarrie
Lañoa	Lainoa	Lañoa
Ordua/ordue	Ordua	Ordue
Burdina	Burdina	Burdiñe
Ortzilaria/ortzileria	Ostirala	Ortzileria
Bortz	Bost	Bortz
Iru	Hiru	Iru
Arratoia	Arratoia	Arrotoña
Lauetanogei	Larogei	Lauetanogei
Ongi etorri	Ongi etorri	Ongi etorri
Erran	Esan	Erran
Gara	Gara	Gara
Gizon gau/au	Gizon hau	Gizon au

Historia eta literatur erabilera

Gaur egun hegoaldeko goi nafarrera itzali hurren dago: oraindik badaude euskalki honetako hiztunak baina hizkuntzaren transmisio naturala etenda dago.

Historikoki oso garrantzi handiko euskalkia izan da eta Iruñean mintzatzen zen euskara ere euskalki honetakoa zen.

Hegoaldeko goi nafarreran idatzita daude hizkuntzaren aldetik inportantzia handia duten obrak: adibidez, segur aski euskaraz inprimatu zen lehenbiziko liburua: Antso Eltsokoren *Doctrina Christiana* delakoa (ez da alerik guganaino iritsi); *Tratado de Oír Misa* (1621), Juan de Beriain utergarrarena, Iruñeko euskararen idatzia, berak deklaratzan duenez:

“Iruñean usatzen denaz izkiriartzen dut, Erresuma honetako burua baita, eta Nafarroan zabalduena eta edonon ulertterazena baita.”

Eta batez ere Joakin Lizarraga, Elkanoko seme eta erretorearen prediku eta otoitz bilduma ikaragarria, gaur itzalita dagoen Iruñerriko euskara ezagutzeko material ezinbestekoa.

Horrez gain, prediku, udal agiri, eta denetariko dokumentuak ere badira euskalki hau hobeki ezagutzeko.



Euskalkiaren ezaugarriak

- Asimilazio bustidurak indar gutxiago du hemen. Euskalki honen eremu historikoan, ez zegoen batere bustidurarik: *irine*, *mutile*...
- Hiato batzuk silaba bakarrean (diptongo gisa) ahoskatzeko joera dago: *étxia*, *bértzia*.
- Bokal harmonia (*ogia>ogie*, *ukatu>uketu*) euskalki guztian hedatuta dago.
- Maizkara aditzen dira hasierako bokala galdutako aditzak (aferesia): *baki* (=ebaki).
- Joan*, *jende*... bezalako hitzetan, hasierako soinua *y-* da gaurko herrietan, eta *x-* eremu historikoan.
- Eremu honetan guztian *-ak/-ek* berezkuntza (nor/nork) egiten da izenen pluralean.
- Instrumentala *-s* da (batua *-z*) gehienetan.
- Ezaugarriak deigarrietako bat da lehenaldiko adizkietan *-n* falta izatea da: *nue <nuen*, *ze < zen*...
- ote-* erabiltzen dela *-e-*ren orde: *dietet* (=diet), *zieten* (=zien), *zaiote* (=zaie).
- Nor-Nori lehenaldian, *-ki-* erroa erabiltzen da, ez *-TZA-*: *zekion/zakion* (zitzaion).
- n* bukaera duten aditzetan (*edan*, *egon*, *izan etab*), geroaldiko forma *-en* egiten da.
- Euskalki honetan oso ohizkoa da partizipioa *-rik* erantsita erabiltzea, *operatuik*.
- raino* denbora adierazteko erabiltzen da: *eraikitzeko denboraraño*.
- ten ahal* perifrasi erabiltzen da ahalkerarako: *guk eztugu ja ere erraten ahal*.
- Hitz eta aldaki asko sartaldekoak dira: *afera* 'asunto', *antzin* 'aurrera', *gibel* 'atze'...



Hegoaldeko goi nafarrera

Kartutxoan! Bala, arrekin... bota ta. Erori ze... arri bat bezala: ruuuun! Ba, artsaldean, mendi artan... ni bueltan: “guazen ya... ilik dago edo, bitxo goi”. Juan gina ta, ezpel batean, burus beite sartuik, ilik; olaxe, sartu bala ta, bertze alderara, pas-tuik...Esnotza nola eman biar dugu? ... E! Main dugu, main dugu...

Euskara batua

Kartutxoan! Bala, harekin... bota eta. Erori zen... harri bat bezala: ruuuun! Ba, arratsaldean, mendi hartan... ni bueltan: “goazen... hilik dago edo, bitxo hori”. Joan ginen eta, ezpel batean, buruz behe-ra sarturik, hilik; holaxe, sartu bala eta, beste aldera, pasaturik...Esnotza nola eraman behar dugu? ... E! Eramango dugu, eramango dugu...

Gaztelera

¡En el cartucho! La bala, con aquella... tirar. Cayó... como una piedra; ¡ruuuun!. Pues, a la tarde, en aquel monte... yo volviendo: ¡Vayamos ya... creo que está muerto, ese bicho! Fuimos y en una mata de boj, metido cabeza abajo, muerto; así la bala, metida la bala por un sitio y salida por otro... ¿Cómo lo vamos a llevar a Esnoz?... ¡Lo llevaremos! ¡Lo llevaremos!

7. Baztanera

Non mintzatzen den

Baztan ibarreko euskalkiari baztanera deitzen zaio. Ibarreko herri guztietan, eta hor bakarrik, hitz egiten da.

Luis Luziano Bonapartek Baztango hizkera iparraldeko goi nafarreraren barrenean sailkatu zuen.

Beste batzuetan, berriz, Baztango hizkera lapurteratzat jo izan da, Bortuez haraindiko euskalkiaren jarraipentzat alegia.

Berriki Koldo Zuazok euskara nafarra deitu euskalkian kokatu du ibar honetako mintzaera.

Gure sailkapenean berriz, Orotariko Euskal Hiztegiari jarraikiz, zuzenean euskalkitzat hartzen da.



Hiztegi erkatua

Baztanera	Batua	Lapurtera
Lotsa/Alkea	Lotsa	Aalkea
Ilia	Ilea	Ilea
Begarrie	Belarria	Begarria/bearria
Lañoa	Lainoa	Lanoa/lainoa
Ordue	Ordua	Ordua/orena
Burdiñe	Burdina	Burdina
Ortizileria	Ostirala	Ortizileara
Bortz	Bost	Bortz
Iru	Hiru	Iru
Arrotoña	Arratoia	Arrotaina
Lauetanogei	Larogei	Lauetanogoi/lauogoi
Ongi etorri	Ongi etorri	Ongi etorri
Erran	Esan	Erran
Gara	Gara	Gara
Gizon au	Gizon hau	Gizon au

Euskalkiaren ezaugarriak

- i ren atzeko asimilazio bustidura ez da ematen orokorrean.
- Bokal harmonia (*uketu =ukatu, ogia>ogje*) oso hedatuta dago.
- Maiz entzuten dira goranzko diptongoak: *ándriak (=andreak)*.
- Aditzek hasierako bokala galtzea ohikoa da (aferesia: *baki (=ebaki), karri (=ekarri)*).
- tu partizipioek -tiko egiten dute geroaldian eta behar atzetik dutela: *galdetiko, galdeti ihar dut (=galdetu behar dut)*.
- Joan, jarri, jasa, jende etab.* bezalako hitzetan, hasierako soinua y- egiten da: *yan*.
- Euskalki honetan pluralean bereizten da nor eta nork (-ak/-ek).
- Nor-Nori-Nork adizkiak osatzeko -erau- erroa erabiltzen da, -au- laburtua: *datzut*.
- n bukaera duten aditzetan (*egon, izan*), -en erabiltzen (maiz -ain laburtua): *errain*.
- ote- erabiltzen dela -e-ren orde: *dietet (=diet), zioten (=zien), zaiote (=zaie)*.
- Aditza laguntzaile jokaterakoan kontrakzioak sortzen dira: *man behauten denboran*.
- Nor-nork eta nor-nori-nork sailak nahastea ohikoa da.
- lako kausa atzizkiak -lako(t)z aldakia du.
- larik(an) atzizkiak -nean lekutu du denbora funtzioetatik: *hamabi urte nitulaiken*.
- tzen ahal perifrasi erabiltzen da ahalkerarako.
- Baztanen batzutan genitiboan jartzen da aditzaren objektua: *gure launtzeko*.
- hitz eta aldakiak ekialdekoagoak izaten dira: *bertze "beste", erran "esan"*.



Historia eta literatur erabilera

Baztanera osasuntsu, herri batzuetan beste batzuetan baino gehiago, dagoen euskalkia da.

Literatura zaharrean gauza handirik ez badago ere, ezin da esan erabat abandonaturik egon denik, batez ere ez baitira gutxi XIX. mendeko idazki erlijiosoak.

Bestaldetik franko ongi dago ikertua. Alde batetik Pello Salabururen egindako ikerketak ditugu (*Baztango euskalkiaz* (1), Bilbao 1980; *Baztango kontsonantismoa*, Euskara XXVIII, 1983; *Hizkuntzaren soinu egitura*, Bilbao 1984; *Hizkuntza teoria eta Baztango euskalkia*: fonetika eta fonologia, Bilbao 1984), bestetik G. N'diayek Amairuko hizkeraren gaineko lana (*Structure du dialecte basque de Maya*, La Haya 1970), eta ahaztu gabe Mariano Izetak prestatuko hiztegia eta idatzitako artikulak.



Baztanera

Artoburue..., bai bertzea uzteute bai, ure an, ure ezpaite yeusteko. Bederatzi amar, segun zer tropa dabilen, pues trop'ure, belia sartzen da, pues bat gelditzen da bijiletzen tropa, belea arbolean gelditzen da bijiletzen, balin badie amar, pues sarti-ko die bedratzi, ta yaen tuzte pues bedratzi buru, ta bakar arek, yendia eldu bazaiote, pues iten du arek abisetu.

Euskara batua

Artoburua..., bai bestea uzten dute bai, hura han, hura ez baita ezertarako. Bederatzi hamar, zer tropa dabilen arabe-ra... belea sartzen da, bat gelditzen da bijilatzen tropa, belea arbolean gelditzen da bijilatzen, baldin badira hamar, ba sarko dira bederatzi, eta janen dituzte ba bederatzi buru, ta bakar harek, jendea heldu bazaie, ba egiten du harek abisatu.

Gaztelera

La mazorca..., sí lo otro lo dejan sí, aquello allí, porque no vale para nada. Nueve, diez, según que tropa ande... el cuervo se mete, uno de ellos se queda vigilando, el cuervo se queda en el árbol vigilando, si son diez, pues nueve se meterán, y comerán pues nueve mazorcas, y aquel que está solo si ve que viene gente, pues les avisará.

8. Nafarroako Gipuzkera

Non mintzatzen den

Luis Luziano Bonapartek Nafarroako gipuzkeran sailkatu zuen Burunda (Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku), Ergoiena (Lizarraga, Dorrao, Unanua) eta Etxarri-Aranazko euskara.

Koldo Zuazoren ustez, burututako ikerketen ondorioz, Burundako euskalkia bere berezko hizkera da, zubi hizkera bat, arunt interesgarria Nafarroa, Gipuzkoa eta Arabako hizkeren ezaugarriekin bat datorrelako neurri batean edo bestean.

Aranatz-Ergoienetan egiten den euskara, berriz, euskara nafarreran kokatzen du ikerlari berak.



Hiztegi erkatua

Nafarroako Gipuzkera (Burunda)	Batua	Iparraldeko goi nafarrera
Lotsea	Lotsa	Lotsa
Ilea/Ilia	Ilea	Illea
Belarrie	Belarria	Belarrie/bearrie
Lainua	Lainoa	Lañoa
Ordube	Ordua	Ordue
Burnie/Burnixa	Burdina	Burnie
Ostilia/Ortzielia	Ostirala	Ostirela/Ortzirela
Bost	Bost	Bost/bortz
Iru	Hiru	Iru
Arratoia	Arratoia	Arratorea/Arratoia
Larogei	Larogei	Larogei/lautanogei
Ondo/ongi etorri	Ongi etorri	ongi etorri
Esan	Esan	Esan/erran
Gara	Gara	Gara
Gizon au	Gizon hau	Gizon au

Euskalkiaren ezaugarriak

- 1 U ondoren ere, *-b-* epentesi bat sortzen da: *burube*.
- 2 Bokal harmonia (*dirua>dirue*) nabaria da Etxarri-Ergoienetan (ez Burundan).
- 3 Bokal luze asko entzuten dira, kontsonante bat galdu ondoren: *bildurraaki*.
- 4 *-i* ondorengo asimilazioa Etxarri-Ergoienetan ematen da (*mutille*) baina ez Burundan (*mutila*).
- 5 Nafarroako gipuzkerak *j* belarea du hasierako soinua: *jende*.
- 6 Adizki sintetikoaren lehenaldian *-a-* agertzen da: *nakan*, *zakien*, ... etab., (*neukan*, *zekien*).
- 7 *Zan*, *ziran* formak erabiltzen dira.
- 8 *Dau* bezalako formak erabiltzen dira Burundan, Bizkaian bezala.
- 9 Etxarrin (*det*, *dezu*, *deu*, *degu*...) erabiltzen dute, baina Ergoienetan eta Burundan *dot*-*n* bukaera duten aditzetan (*edan*...), geroaldiko forma aldakorra da: *izanko*, *izain*...
- 10 Pluralean ez dira bereizten nor eta nork (*-ak/-ek*).
- 12 Instrumentala *-s* da Etxarri-Ergoienetan, *-z* Burundan oines/oinez.
- 13 Nondik eta *-gati* kasua egiteko *-ti* erabiltzen da, *-k* gabe: *horreati*.
- 14 Burundan *a* organikodun hitzak *-ea* jokatzen dira artikulua jasotzean: *dantzia*.
- 15 Hiztegiaren oso euskalki karakterizatua da. *Udx* "ur", *itzoo* "igo", *erabai* "erabaki".



Historia eta literatur erabilera

Hizkuntzaren bizitasunaz den bezainbatean ere alde handiak nabari dira: Ergoieneko herrietan euskarak bizi-bizirik dirau; Etxarri-Aranazko euskaldunen kopurua baxuagoa da, eta Burundan egoera larriagoa da. Burundako Ziordia, Olazti eta Altsasun euskalkia desagertu da eta bakarrik Urdiainen eusten zaio bertako hizkerari.

Oso eztabaidatsua gertatu da euskalki honen izendapena. Ezin da ukatu euskalki muga bat dagoela Etxarri eta Bakaikuren artean. Gipuzkera izena bera eztabaidagarria gertatu da behin baino gehiagotan. Ikertzaileak ez dira denak bat etorri horren gainean. Damaso Intzak, 1922. urtean argitaratutako "Burundako'ko Euskalkia", garbi ikusten zuen Burundako euskara bestelakoa zela, eta ezin zela lotu gipuzkerarekin.

Idatzizko erabilerrari dagokionez Victoriano Huiciren izena aipatu behar da. Etxarriar honek hiztegi eta gramatika bat idatzi zuen. Gainera badira kazetaritzan aritutako idazleak: Jesus Flores Goñi, Santiago Ezkerra, Felipe Araña, Jose Maria Satrustegi...



Gipuzkera (Urdiain)

Ez izan obegoik ta nolabait e jo ber, eta patatia irein, jorratu, eta patatia ataixpea, diru ura artu ta arropa pixkat eo, zeozer iteko egoten zan jendea... Bai... goai badakizu, bizimoduba kanbiatu da ta jendiak ibazi iten dau asko; ta goai urte hoi-tan jendiak bauka ba moduba etxe ona, etxe majo paatzeko.

Euskara batua

Ez izan hobeagorik eta nolabait ere jo behar, eta patata erein, jorratu, eta patata noiz atera esperoan, diru hura hartu eta arropa pixka bat edo, zeozer egiteko egoten zen jendea... Bai, orain badakizu, bizimodua aldatu da eta jendeak irabazi egiten du asko; eta orain urte horietan jendeak badauka ba modua etxe ona, etxe majo paratzeko.

Gaztelera

No había nada mejor y de alguna manera había que actuar, y plantar la patata, escardar, y esperar a ver cuándo salía la patata, cobrar ese dinero y comprar algo de ropa, la gente estaba para hacer algo... Si, ahora, ya sabes el modo de vida ha cambiado y la gente gana mucho, y ahora la gente tiene medios para tener una buena casa, para poner bien una casa.

9. Lapurtera

Non mintzatzen den

Nafarroako bi herritan egiten da lapurteraz, Sarako azpieuskalkian hain zuzen ere: Urdazubin eta Zugarramurdi. Bi herri hauek, izan ere, administrazioz Nafarroa Garaikoak badira ere, hizkuntzaz eta kokapen geografikoaz Lapurdirekin ahaidetasun handia dute. Antza denez, Otsondo mendateak ezarri duen oztopo geografikoak zer ikusia badu afera honetan.

Koldo Zuazok proposatzen duen euskalkien sailkapenean lapurtera eta behe nafarrera batzen dira nafar-lapurtera izeneko euskalkian.

Bi herri hauetan euskara osasuntsu dago eta herritar gehienak euskaraz mintzo dira.

Axular

Urdazubikoa zen euskarak izan duen idazle klasikorik handiena: Pedro Dagerre Azpilkueta, Axular sortetxe-ko izenez gehiago ezagutua. 1556. urtean jaio zen eta 1644. urtean hil zen, Sarako apaiza 44 urtez egon ondoren.

Liburu bakarra idatzi zuen: *Gero, bi partetan partitua eta berezia*. Erljio gaia darabil, baina ezin ederragoa den euskara batean idatzia.



Hiztegi erkatua

Lapurtera Urdazubi/Zugarramurdi	Batua	Behe nafarrera Luzaide
Aalkea	Lotsa	Lotsa/Alkea
Ilea	Ilea	Ilia
Begarria/bearria	Belarria	Begarrie
Lanoa/lainoa	Lainoa	Lañoa
Ordua/orena	Ordua	Ordue
Burdina	Burdina	Burdiñe
Ortzilarea	Ostirala	Ortzileria
Bortz	Bost	Bortz
Iru	Hiru	Iru
Arrotaina	Arratoia	Arrotoña
Lauetanogoi/lauogoi	Larogei	Lauetanogei
Ongi etorri	Ongi etorri	Ongi etorri
Erran	Esan	Erran
Gara	Gara	Gara
Gizon au	Gizon hau	Gizon au

10. Behe nafarrera

Non mintzatzen den

Nafarroako herri bakar batean egiten da behe nafarreraz, Luzaiden. Luzaide, izan ere, administrazioz Nafarroa Garaikoa bada ere, urez eta hizkuntzaz Garaziko herri bat da. Jakina da askotan geografiak argi eta garbi baldintzatzen duela euskalki baten hedadura. Gure kasuan Ibañetako mendatea oztopo geografiko handia zen Nafarroa Garaiko herriekin harremanak izateko momentuan eta, aldiz, muga administratiboak ez du izan, orain arte behintzat, horrenbesteko garrantzia.

Euskararen egoera, alabaina, ez da sobera baikorra Luzaide aldean, erabilera gutxitu da, Elizaldeko kalean batez ere, eta euskarak Nafarroa Beherean jasan duen beherakadak ere ez du laguntzen. Hori dela eta,

euskararen erabileraz den bezain batean, diferentzia handiak sumatzen dira Luzaiden auzo batetik bestera, eta belausaldira batetik bestera.

Hala ere Luzaideko herria emankorra suertatu da euskal literaturarako: Enrike Zubiri "Manezaundi", Bordele bertsolaria eta Angel Aintziburu...



Hiztegi erkatua

Behe Nafarrera Luzaide	Batua	Aezkera
Ahalgia	Lotsa	Alkea
Bilua/filia	Ilea	Biloa/Eilea
Beharria	Belarria	Biarria
Lanhoa	Lainoa	Lanoa
Orena	Ordua	Ordua
Burdina	Burdina	Burdina
Ortziralia	Ostirala	Ortzilarea
Bost	Bost	Bortz
Hiru	Hiru	Iru
Arratoia	Arratoia	Arratiua
Lauetanogoi	Larogei	Laurogei
Ontsa jin	Ongi etorri	Ongi Etorri
Erran	Esan	Erran
Gira	Gara	Gira
Gizon hau	Gizon hau	Gizon Gau

Lapurtera

Oik erraten diete bedezaarrak... Gero badie bedatxak, bertziak, ttikiaguak... Usoen gieletik gaten die ek. Bedatxak, andik eldu dienak usoekin batean, patta gorriak ituzte... Bedezarra bakizu zetako den ona? ... Sartze uzu erdi erdian bi, bedazar bat edo bia... Illak ziri baten puntan, ta trankiloo eon, ezta urbilduko arat deus. Ez, ez ori ta ez fitsik.

Euskara batua

Horiei esaten diete belzaharrak... Gero badira belatsak, besteak, txikiagoak... Usoen atzetik joaten dira haiek. Belatsak, handik heldu direnak usoekin batean, patta gorriak dituzte... Belazaharra bada-kizu zertarako den ona? ... Sartzen duzu erdi erdian bi, belazahar bat edo bida... Hilak ziri baten puntan, ta lasai egon, ezta hurbilduko hara ezer. Ez, ez hori ta ez ezer.

Gaztelera

A esos se les llama "cuervos". Después hay bedatxak (córvidos), otros, más pequeños... Aquellos van por detrás de las palomas. Esas bedatxak, las que vienen de allí junto con las palomas tienen las patas rojas... ¿Sabes para qué es bueno el cuervo?... Metes en el medio dos, un cuervo o dos... muertos clavados en un palo, y estate tranquilo, no se acercará allí nada. Ni eso ni nada.

Behe nafarrera

Kabala frango eldu da or ta amabost kilometraz kusten al da zomat ardi alde den, anitz mila ardi bada or, ta orik muga ortan dailtza, ta mugako belar guzia, ori yaten zuten, ta gaineat errain dizut gauza at, leeno re errana dut beste erreportero batzuer: Luzaiden nai balin badu bere lurra etsi eta oriek eztira kontent...

Euskara batua

Abere franko heldu da hor ta hamabost kilometroz ikusten ahal da zenbat ardi alde den, anitz mila ardi bada hor, ta horiek muga horretan dabilta, ta mugako belar guztia, hori jaten zuten, ta gainera esango dizut gauza bat, lehenago ere esana dut beste erreportero batzuei: Luzaiden nahi balin badu bere lurra hertsu eta horiek eztira kontent...

Gaztelera

Por ahí llegan muchos animales y durante 15 kilómetros se puede ver cuántas ovejas hay, varios miles de ovejas, y esas andan en esa frontera, y toda la hierba de frontera, eso se comen, y además te diré una cosa, ya se lo tengo dicho también a otros periodistas: si Valcarlos quiere cerrar y esos no están contentos...

11. Aezkera

Non mintzatzen den

Aezkoako ibarrean mintzatzen den euskara da. Bonaparte printzeak bere saillkapenean mendebaldeko behe nafarreratzat jotzen du Aezkoako euskara. Baina ezin uka oso nortasun berezia duela eta agian beregaino euskalkizat jo daitekeela. Horrela egiten da *Orotariko Euskal Hiztegia*, eta baita liburu honetan ere.

Berriki egindako doktoretza tesi batek, Iñaki Caminorenak, xehero ikertu du aezkera. Datu berri hauekin aezkera nafarrera deitutako euskalkiaren barrenean sartu du Koldo Zuazok.




Hiztegi erkatua

Aezkera	Batua	Hegoaldeko goi nafarrera
Alkea	Lotsa	Alkea
Biloa/Eilea	Ilea	Biloa/Illea
Biarria	Belarria	Biarrie
Lanoa	Lainoa	Lañoa
Ordua	Ordua	Ordua/Ordue
Burdina	Burdina	Burdina
Ortzilarea	Ostirala	Ortzilaria/Ortzileria
Bortz	Bost	Bortz
Irur	Hiru	Iru
Arratiua	Arratoia	Arratoia
Laurogei	Larogei	Lauetanogei
Ongi etorri	Ongi etorri	Ongi etorri
Erran	Esan	Erran
Gira	Gara	Gara
Gizon gau	Gizon hau	Gizon gau/au

Euskalkiaren ezaugarriak

- i bokalaren ondotik ez da *n*-ren asimilazio bustidurarik gertatzen: *Amaberkina, einik*.
- i bokalardiaren ondotik ere ez (bai hegoaldeko goi nafarreran eta zaraitzueran): *oines*.
- Zaraitzueran bezala, ez dago bokal harmoniarik.
- Ai* diptongoa ei bihurtu da askotan: *orei, bezein...*
- Maiz gertatu da hitz barrango bokal bat galtzea (sinkopa), *atra, abrats, abre, etxetra*.
- Joan, jarri, jende* eta antzeko hitzetan, aezkerak, *x*- du hasierako soinua: *xan*.
- Aezkoan ongi bereizten dira nor eta nork pluralean ere (-ak eta -ek).
- Instrumentala beti -s da: *Karreteras, karreteras*.
- Erakusleek hasierako *g*- bat ageri dute: *gau, gori, gor etab*.
- Izenorde intentsiboak ekialde eitekoak dira: *guhaur, nihaur, etab*.
- Hegoaldeko goi nafarreran bezala, lehenaldiko adizkietan -n falta da: *zire*.
- Nor-nori-nork saila egiteko -erau- erroa erabiltzen da (-au- laburtua): *dauzunak*.
- Normal erabiltzen dira -rik erantsitako partizipioak: *baia goixtar buelta eginik gandik*.
- Galdegilerik gabeko galderetan -a aditz atzizkia erabiltzen da.
- Aezkeran -te/tze-dun aditz izenen objektua genitiboan jar daiteke: *haginein atratzera*.
- Hitzak ekialdekoak dira: *oino`oraindik, bertze`beste, igorri`bidali*.



Historia eta literatur erabilera

Euskalki hau itzali hurren dago, nahiz eta zaraitzueran baino biziago dagoen. Oraindik badira euskalki honetako hiztun franko, baina salbuespenez ez bada, transmisio naturala etenda dago.

Euskalki honek ez du literatur erabilerririk izan, alde batera utzita, noski, gai erlijiosodun gaia ardatz duten liburuak.

Aezkeraz idatzitako liburuak urriko badira ere, aezkerari buruzko liburuak badira. *Aetzen* uskara izeneko liburuan aezkera zabal-tzeko ahalegina egiten da, era ireki eta errazean. Horretaz gain *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa* izeneko liburuan euskalki honi buruzko informazio zehatza aurkituko dugu.



Aezkera

Goiti fan bea'uzie mendira? Pues egu zindute eun ona gor goiti fateko kotxekin. Ikusto'uzie peina gori? Gorren gainean mendia biziki ona da, freskoa, gou beino anitzes freskoao, ta ezpeita llanoik eta ja ere egu. Gen ezta gor goiti yon ere llanoik, ez. Ta gero bertze alderdi'atera ere bada karretera fateko.

Euskara batua

Gora joan behar duzue mendira? Ba gaur zenuten egun ona hor gora joateko kotxearekin. Ikusten duzue haitz hori? Horren gainean mendia oso ona da, freskoa, hau baino askoz freskoagoa, eta ezpaita lainorik eta ezer ez gaur. Han ezta hor gora inon ere lainorik, ez. Eta gero beste alderdi batera ere bada errepidea joateko.

Gaztelera

¿Vais a subir, al monte? Pues hoy tenáis un buen día para subir arriba con el coche. ¿Veis esa peña? Encima de ella el monte es muy bueno, fresco, mucho más fresco que esto, y porque no hay ni niebla ni nada hoy. Allí arriba no hay nada de niebla. Y luego por otro lado también hay carretera para ir.

12. Zaraitzuera

Non mintzatzen den

Zaraitzuera, Zaraitzu ibarreko euskalkia, ibar honetako herri guztietan hitz egiten zen oraindik ere XX. mendean hasieran. Erronkarin bezala, galera ibarreko hegoaldeko iparrera hedatu da, azken hiztunak Otsagabia, Ezkaroze eta Jaurrietakoak izanik.

Bonaparte printzeak bere sailkapenean ekialdeko behe nafarreraren aldatziz jo zuen zaraitzuera. Baina ezin uka oso hizkuntza nortasun berezia duela eta beregaino euskalkizat jo daitekeela, Orotariko Euskal Hiztegia eta liburu honetan egiten den bezala.

Kolko Zuazok, berriz, Ekialdeko Nafarreraren kokatzen du, erronkarierarekin batera.



Hiztegi Erkatua

Zaraitzuera	Batua	Aezkera
Alkea	Lotsa	Alkea
Biloa/Ilea	Ilea	Biloa/Eilea
Begarria	Belarria	Biarria
Lañoa	Lainoa	Lanoa
Orona	Ordua	Ordua
Burriña	Burdina	Burdina
Orzilaria	Ostirala	Ortizilarea
Bortz	Bost	Bortz
Irur	Hiru	Irur
Arratoa	Arratoia	Arratiua
Laurogei	Larogei	Laurogei
Ongi xin	Ongi etorri	Ongi etorri
Erran	Esan	Erran
Gra	Gara	Gira
Gizon kau	Gizon hau	Gizon gau

Historia eta literatur erabilera

Galera prozesuari XIX. mendean hasiera eman bazitzaion ere 1904. urtean oraindik ere herri guztietan euskaraz egiten zen. Mende bat geroago egoera erabat aldatu da. 2002. urtean bi hiztun daude zaraitzuera ama hizkuntza izan dutenak eta oraindik ere euskalkian hitz egiteko gai direnak: *Otsagiko* Pedro Juan Zoko 93 urteko jauna eta Jaurrietako Mari Kruz Esarte 86 urteko andrea.

Literatur lanak oso urriak dira zaraitzueraz eta ohiko gai erlijiosodun liburuetatik at deus gutxi dugu euskalki honetan. F. Garraldaren lantxoak dira salbuespen bakarrak.

Horretaz gain, berriki argitaratu dira zaraitzuerari buruzko lan interesgarriak: *"Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Zaraitzera"*, non Bonaparteren ekimenez sortutako materialak biltzen diren; *"Zaraitzuko hiztegia. Zaraitzuera - Euskara Batua / Euskara Batua - Zaraitzuera"* eta zaraitzuera ikasteko prestatu den gramatika *"Zaraitzuko uskarara. Zaraitzuera ikasteko liburua"*.



Euskalkiaren ezaugarriak

- Sinkopak deigarriak dira: *aingrua* (aingerua), *erman* (eraman), *ikustra* (ikustera).
- Erakusleetan *k* protetikoa agertzen da: *kau*, *kori*, *kura* (hau, hori, hura).
- a organikodun hitzek mugatu singularra hartzerakoan -ara egiten dute: *euskarara*.
- Nora kasua -ala atzizkiarekin egiten da, zuberera eta behenafarreraren bezala: *oihaneala*, *bordala*.
- Nor eta nork pluralean ere bereizten dira (-ak eta -ek): *emaztiak egiten ginuen*.
- i*-ren atzeko bustidura *i* bokalerdia denean gertatzen da (*gañean*), ez bokala denean: (*eginik*).
- Ez *t ez / ez* dira inoiz bustitzen *i*-ren ondotik: *egiten, aita...*
- X*-erabiltzen da hitz hasieran *j*-ren ordez: *xaiki* (jeiki), *xakin* (jakin).
- Zaraitzueraz aditz trinkoa oso gutxi erabiltzen da: "ni noa" "*ni faten niz*" esaten da.
- Xuketazko tratamendua asko erabiltzen da: *ni nixu*, *kurak txu* (ni naiz, hura da).
- NOR-NORI-NORK* sailean -erau- erroa erabiltzen da: *dauzut* (dizut).
- Erlatibozko perpausak egiteko modu diferenteak. Ene-dun erlatibozkoak: "*Erosi dugun etsea polit da*", baina baita ere: "*Etse erosi duguna polit da*" eta "*Etsea, erosi baitugu, polit da*".
- Hiztegi aldetik lotura zuzena du behe nafarrerarekin - *fite* (azkar), *elea* (hitza), *bedatsea* (udaberria), *urzoa* (usoa), *xin* (etorri), *zomat* (zenbat).
- Galdegilerik gabeko galderetan -a aditz atzizkia erabiltzen da: *Badakizua*.



Zaraitzuko Hiztegia
Batua - Euskara Batua - Zaraitzuera

Zaraitzuera

Pues deuse, aita urte gutis izan ze, izan ze ene senarra, faten zena artzai, aita ez aita ya zen delikatu, beti zegoen eri, delikatu, baia ene senarra faten zen sei edo zazpi ilabeterendako Erribrala, eta ni kemen berzeekin, lenbiziko urteetan bi semerekin baratzen nintzan, ta aita t'ama. Eta senarra Erribran.

Euskara batua

Ba ezer ez, aita urte gutxitan izan zen, izan zen ene senarra, joaten zena artzain, aita ez aita jada zen delikatua, beti zegoen eri, delikatua, baina ene senarra joaten zen sei edo zazpi hilabeterako Erriberara, eta ni hemen besteekin, lehenbiziko urteetan bi semerekin gelditzen nintzen, eta aita eta ama. Eta senarra Erriberan.

Gaztelera

Pues nada, el padre estuvo pocos años, fue mi marido, el que iba de pastor, el padre no, el padre ya estaba delicado, siempre estaba enfermo, delicado, pero mi marido iba para seis o siete meses a la Ribera, y yo aquí con los otros, los primeros años me quedé con dos hijos, y el padre y la madre. Y el marido en la Ribera.

13. Erronkariera

Non mintzatzen den

Erronkariera Erronkaribarko zazpi hirietan mintzatu da. Gaur jada itzalita dago mende bat hilzorian egon ondoren. XIX. mendearen erdialdean euskara jada atzeraka hasia zen ibarrean, eta XX. mendearen bukaeran hil zen erronkarierazko azken hiztuna. Hedaduraz den bezainbatean oso zabala izan ez arren, lau hizkera bereizten ziren bertan: Bidankozekoa, Urzainkikoa, Izabakoa eta Uztarrozekoa Bonaparterentzat erronkariera zubereraren aldaera bat zen, baina Azkuek jada beregaingo euskalkizat jotzen zuen, Orotariko Euskal Hiztegian eta liburu honetan egiten den bezala. Koldo Zuazok nahiago du Ekialdeko nafarreratzat hartu, izendapen horren barrenean zaraitzuera eta erronkariera sartuz.



Hiztegi erkatua

Erronkariera	Batua	Zaraitzuera
Alkea	Lotsa	Alkea
Bilua/Illie	Ilea	Biloa/Ilea
Biarria	Belarria	Begarria
Lantxerra	Lainoa	Lañoa
Orena	Ordua	Orona
Burduña/burruña	Burdina	Burriña
Orzilaria	Ostirala	Orzilaria
Bortz	Bost	Bortz
Irur	Hiru	Irur
Arratoia	Arratoia	Arratoa
Laurogei	Larogei	Laurogei
Onki xin	Ongi etorri	Ongi xin
Erran	Esan	Erran
Gra	Gara	Gira
Gizon kaur	Gizon hau	Gizon kau

Historia eta literatur erabilera

Erronkarierazko hiztunak mendez mende egon dira erromantzearen hizkuntz muga. Geografikoki bai ekialdetik, bai hegoaldeetik eta baita hegomendealetik ere, non muga egiten duen Aragoiko hiri eta ibarrekin, erronkariera hizkera erromantzez inguratua egon da (nahiz eta frogatua egon Anso ibarrean euskaraz egin zela Goiz Erdi Arora arte).

Gainera bere bizitza ekonomikoa zela eta, almadiak eta artzaintza, erronkariarrak euskaraz egiten ez zen Ebro ibarreko eskualdeetara joaten ziren. Erronkariarak izan zuen kokapen geografiko berezi hau bere hizkuntza pertsonalitate handiaren arrazoia da. XIX. mendeko testu erlijioso ugari gorde dira erronkarieraz. Nafarroako Euskararen Fonotekan ere bildu dira Uztarroze eta Izabako ahozko testigantzak.

Berriki erronkariera-gazteleraazko hiztegi bat ere argitaratu da, Bernardo Estornes Lasak moldatua.



Euskalkiaren ezaugarriak

- Aditz izenak *-tan-* en bidez egiten dira (orokorrean *-ten*): *erraitan, egitan*.
- Nork, singularreko lehen pertsonan, adierazten duen morfema *-d* edo *-r* da *dur/dud*, (orokorra *-t*: *dut*).
- Geroaldia *-en* atzizkiarekin egiten da, baita bokalez amaitzen direnetan ere: *Igarrien*.
- Nora kasua *-ara* da eta ez *-ra*: *mendiara*.
- Norekin kasua *-ki* da: *aingurieki*.
- Erakusleek hasieran *k-* dute: *keben*.
- Nor eta nork pluralean bereizten dira (*-ak/-ek*): *mitilek*.
- Zubereraz bezala, sonante baten atzean oklusiboak ez dira ahostun egiten: *onki*.
- Au diptongoa *a* egiten da batzuetan, zubereraz bezala: *gaiza*.
- Hitz barrenean maiz galtzen da bokal bat: *abras*.
- Gisa honetako asimilazio bokalikoak: *uturri* (< iturri). *Hotsr*: i...u, e...u > u...u: *gatzulu*.
- ua-* hiatua *-ia-* ahoskatzen da: *buria*.
- Jan, joan, jautsi* eta antzeko hitzetan hasierako soinua *x-* da : *xan, xoan, etc.*
- l-*ren atzean ez dago palatalizaziorik: *llarrainiara*.



español - euskara roncalés
Erronkariko euskararen hiztegia

Erronkariera

Solo! Aitareki ez kainbeste, amareki eta tia bat bigunien, amaren aizpa, erraitan zeia guzia uskaraz, eta nik pues kolaxet ikasi nien. Eta orai dun, ene amak, bizi nun ni ogeitalaur urte obro ezik ama, bizi niela, eta eztiar elerrainan eukereki, korren... erraitan diela abuelareki...

Euskara batua

Soilik! Aitarekin ez hainbeste, amarekin eta izeba bat bait genuen, amaren ahizpa, erraten zidaten guztia euskaraz, eta nik ba holaxe ikasi nuen. Eta orain dun, ene amak, bizi naun ni ama baino hogeitalau urte gehiago, bizi niela, eta ez tut hitz egiten inorekin, horren... erraten dudala amonarekin...

Gaztelera

¡Sólo! Con el padre no tanto, con la madre y con la tía que teníamos, hermana de mi madre, me hablaban siempre en vascuence, y así aprendí yo. Y ahora es, mi madre, que yo ya he vivido 24 años más que mi madre, y no hablaré con nadie, eso.... que digo con la abuela...

14. Hizkera galduak



Galera handiak izan dira. Gainera horietako leku eta hizkera askotako daturik ez dugu, edo oso gutxi, idatziz deus gutxi transmititu zelako hizkera horietan eta dialektologia garatu baino lehen galdu zirelako, eta beraz, ez dago gisa horretako ikerketarik eskura.

Non hitz egin da euskara?

Lehenengo lana da frogatzea Nafarroako ibar edo herri jakin batean euskaraz mintzatzen zirela.

Demagun Uxue bezalako herri baten hizkuntza egoera aztertu nahi dela. Hegoaldera begira dago eta Erriberako atean paratua. Gaur gaztelera da han hizkuntza nagusia eta inork ez du herrian besterik gogoratzen; ez dago Uxueko euskal hizkeran mintzatzen den inor, ez dago bertako euskalkian idatzitako testurik... Orduan bide bakarra gelditzen da: toponimia aztertzea. Orduan bai, orduan azalera-tzen dira euskal leku-izenak, Uxueko alor eta mendiak identifikatzeko erabiltzen direnak, eta horiei esker jakinen dugu Uxuen euskaraz egin zela, noiz arte egin zen eta zer nolako euskalkia egiten zen hor.

Beste kasu batzuetan egoera hobe da, testu idatziak badaudelako. Izarbeibarren edo Iruñerrian, esate baterako, ugariak ere badira. Hala ere testu horiek ez dira lekukorik hoberenak hizkerak ezagutzeko, gehienetan sermoiak, dotrinak eta erlijioarekin lotutako testuak direlako, maiz herriko hizkeratik urruti.

Galdutako zenbait hizkera

Tamalez Nafarroako euskal hizkera batzuk erabat galdu dira. Erronkaria izan da galdu den azkena, baina hori baino lehen beste hizkera batzuek hartu zuten bide bera: Ameskoa eta Lana ibarretakoek, Estellerriko, Iruñerriko eta Irunberri-Urraulgo hizkerak, Izarbeibar eta Orbaibarreko hizkerak, eta baita Oibar aldekoek ere.

Laster, heldu diren urteetan, gainera beste euskalki batzuk itzaltzen ikusiko dugu: zaraitzuera, hegoaldeko goi nafarrera eta aezkera azken hiztunekin batera itzaliko dira.



Euskal hizkerak

Ameskoa eta Lanako hizkerak

Luis Luziano Bonapartek ez zuen hemengo euskararen berri eman egindako bidaietan, nahiz eta oraindik garai horretan euskaldunak izan Ameskoa ibarrean. Eskualde honetako oso euskal testu gutxi heldu da gureganaino ere eta horrek toponimiari utzi dio azken hitza. Toki izenen inguruan egin diren azterketek, dena den, frogatzen dute lotura handia zegoela hemengo hizkeraren eta Burundako hizkeraren artean. Bestaldetik, eskualde honetako hizkerak eta Arabako ekialdeko eskualdetakoak ere oso antzekoak omen ziren. Zalantzarik gabe, Nafarroako hizkeren artean, hau da interesgarrienetako bat.

Estellerriko hizkerak

Informazio gutxi dugu Estellerriko hizkeren gainean, baina eskura ditugun datuen arabera hemengo euskalkia hegoaldeko goi nafarrerako ezaugarriekin bat zetorren.

Iruñerriko hizkerak

Iruñerriko azken euskalduna, 1992. urtean hil zen. Beorburun jaioa zen. Haren hizkera grabatua dago eta entzun daiteke, Iruñerriko beste testigantza batzuekin egin daitekeen bezala, esate baterako, ibar bereko Untzu herrikoa ere entzun daiteke, eta baita Ezkabarte eta Itzakoa ere. Dena den datu urriak dira, gutxiegi Iruñerriko hizkera ezagutzeko. Aitzitik, material idatzia ezin ugariagoa da: hainbat herritako testu erlijiosoak eta, batez ere, Joakin Lizarraga, Eguesibarko Elkanoko apaiza izandakoaren obra mardula. Joakin Lizarragak utzitako ondare idatzitari esker zehatz-mehatz ezagut daiteke Iruñerriko euskal hizkera.

Artaxoa eta Eslaba aldeko hizkerak

Artaxoa, Orbaibarra, Uxue, Eslaba, Zare eta Galipentzu herriak euskara eta gaztelararen arteko muga-mugan egon dira mende askotan. Beraz, bertatik eskura daitezkeen datuak oso garrantzitsuak dira jakiteko ea hango hizkerak euskalki berezi bat osatzen zuten edo goi nafarreraren barranean sailkatzen ziren. Zoritxarrez, eta beste herri askotan gertatzen den bezala, ez da gorde eskualde honetako testurik. Horregatik toponimiatik abiatu beharra dago hango euskararen berri izateko, eta leku izenen arabera hemengo hizkerak goi nafarreratik oso hurbil zeuden edo, horrela nahiago bada, euskalki honi zegozkion hizkerak ziren.



15. Nafarroako euskararen fonoteka



dira 1990 eta 1993. urte-
etan argitara eman
ziren *Euskaldunen
Mintzoak* izene-
ko liburuak.
Argitalpen
bereziak ziren
ardatza ahoz-
ko materiala
z e l a k o ,
Nafarroako
hainbat hizke-
raren testi-
gantzak biltzen
zituzten grabake-
tak hain zuzen.


Norabide berean beste
aurrerapauso bat eman zen
Nafarroako Euskara izeneko CDarekin,
non Nafarroako euskalkiak multimedia bidez aur-
kezten ziren.

Proiektuaren asmoa

Nafarroako Euskararen Fonoteka Nafarroako
Gobernuaren Unibertsitateetarako eta Hizkuntza
Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren eta Euskal
Kultur Erakundearen arteko lankidetzari esker sortu-
tako lana da. Proiektu honen asmoa da Nafarroako
euskalkien grabaketak gordetzea eta, era berean,
interesaturik egon daitezkeen guztien eskura para-
tzea.

Nafarroako euskarak euskalki aberastasun izugarria
du. Guztien gogoan dago, halere, aberastasun hori
atzeraka dabilela aspalditik: alde batetik euskara
batuaren aurrerapenari men egiten diolako, eta
batez ere euskalkiok euskararen galera historikoa
dela medio itzaliz doazelako. Nafarroako herri asko-
tan, tamalez, eten egin da euskararen transmisio
naturala. Hor, azken hiztunekin batera Nafarroako
euskalki eta hizkera asko galdu dira.

Alabaina, Nafarroako Euskararen Fonoteka ez da
hutsetik abiatzen den proiektua. Gogoratzekoak



Grabaketan koadroa euskalkika

fonoteka_		
Eusalki aurkibidea		
Aezkera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grab. nagusia	
Aezkera	Grabaketa	62
Bastanera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	117
Beha Nafarrera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	374
Eskalduneko Beha Nafarrera	Grabaketa	165
Azuleta	Grabaketa	42
Azema	Grabaketa	39
Orreaga	Grabaketa	84
Mendebaldeko Beha Nafarrera	Grabaketa	209
Orreaga	Grabaketa	209
Erronkariara (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	8
Eskalduneko Erronkariara	Grabaketa	0
Orreaga	Grabaketa	0
Urdulaga	Grabaketa	0
Urdulaga	Grabaketa	3
Gipuzkera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	190
Nafarroako gipuzkera	Grabaketa	190
Goi Nafarrera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	721
Hegoaldeko Goi Nafarrera	Grabaketa	84
Azuleta	Grabaketa	0
Azema	Grabaketa	3
Orreaga	Grabaketa	59
Orreaga	Grabaketa	8
Orreaga	Grabaketa	4
Orreaga	Grabaketa	90
Iparaldeko Goi Nafarrera	Grabaketa	636
Azuleta	Grabaketa	128
Azema	Grabaketa	153
Orreaga	Grabaketa	43
Orreaga	Grabaketa	80
Orreaga	Grabaketa	224
Lapurtera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	12
Orreaga	Grabaketa	12
Zaraitzuera (1444) (guzaki zehaztasun)	Grabaketa	9
Zaraitzuera	Grabaketa	9
'Euskalkia zehaztu gabekoak (1444)	Grabaketa	
'Euskalkia zehaztu gabekoak	Grabaketa	

Proiektuaren ezaugarriak

Nafarroako Gobernuak ekin dio joan den 40 urte honetan Nafarroako euskalki altxorren testigantza ordezkaezi-
nak biltzeari. Kasu bat baino gehiagotan Nafarroako euskararen zenbait aldakiren lekuko bakarrak euskarri magne-
tiko horietan daude (zinta magnetofonikoak edo kaseteak).

Nafarroako Euskararen Fonoteka deitutako proiektuak, hortaz, bi helburu nagusi ditu. Lehenbizi, Nafarroako kultur
ondarearentzat balio izugarria duten materialak babestea, pixkanaka hondatzen ari baitira, erabateko galbidean.
Nafarroako Euskararen Fonotekan, beraz, dagoen materiala digitalizatzeaz arduratzen da. Bigarrenik, gaur barrea-
turik dauden material horiek bildu eta sailkatzea, Nafarroako euskararen ikertzaileei artxibo zentralizatu eta sailka-
tu bat eskaintzeko, erraz kontsultatzeko modukoa eta material berriez osatzeko erraza.

Nafarroako Euskararen Fonotekako fondoak etengabe berritzen ari dira bilduma berriak eskuratuz. Horretaz gain
eduki berriak lantzen ari dira eta, esate baterako, grabaketa bakoitzean hizpide diren gaien laburpena egiten ari da
eta, kasu batzuetan, grabaketan esandakoaren transkripzio zehatza ematen da.

Harremanak Nafarroako Euskararen Fonotekarekin

Nafarroako Fonotekaren eduki osoa ez dago eskura interneten. Momentuz, soinu artxiboak falta dira. Horiek kon-
sultatzeko ikertzaileak helbide honetara jo beharko du: Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza
Nagusia: Navarrería Kalea 39, 31001 Iruña.

Aberastu zeuk ere Nafarroako Fonoteka.

Nafarroako Fonoteka leku aproposa da ekimen pertsonalaz edo eskola giroan egindako grabaketa interesgarriak gor-
detzeko. Kolaboratzaileari berak ekarritako materiala itzuliko zaio, eta gainera CD edo DVD batean ere ematen zaio
formatu digitalean.

Gorago esandako helbidean informazio gehiago eskuratuko duzu.



16. Gehiago jakiteko

Dialektologia

Euskara eta dialektologia

Txillardegi et alii: *Euskal Dialektologiaren hastapenak*. UEU. Iruña, 1983.

Euskal Herriko Atlas Etnolingüistikoa. Aranzadi Zientzia Elkarte. 1984-1990.

Nafarroa eta dialektologia

Ibarra, I; Gallego, P: *Nafarroan Zehar. Euskararen ibilbidea*. Nafarroako Gobernua. Iruña, 1999.

Pagola, R. M: *Euskal Fonetika Nafarroan* (2 liburuki). Nafarroako Gobernua. Iruña, 1992.

Etxaide, A. M: *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas* (1965-1967). Eusko Ikaskuntza, 1989.

Elgoibar, E; Zubizarreta, B; Gaminde, I: *Euskararen galera Nafarroan* (1587-1984). Pamiela. Iruña, 1987.

Toponimia eta Mapagintza. (60 liburuki) Nafarroako Gobernua.

Iparraldeko goi nafarrera

Pagola, R. M.; Iribar, I. eta Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko Goi-Nafarrera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Olano, M: *Areso eta Leitzako hizkerak*. Nafarroako Gobernua. Iruña, 1997.

Zubiri, J.J.; Perurena, P.: *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Nafarroako Gobernua. Iruña, 1998.

Ibarra, O.: *Ultzamako hizkeraren azterketa. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua. Iruña, 1995.

Hegoaldeko goi nafarrera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Hegoaldeko Goi-Nafarrera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Ibarra, O.: *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Nafarroako Unibertsitateko Publikoa. Iruña, 2000.

Aezkera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Aezkera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Camino, I.: *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua. Iruña, 1997.
Cabodevilla, J.; Aetzen uskara. Nafarroako Gobernua. 1991.

Zaraitzuera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Zaraitzera* - 1997. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Zaraitzuko hiztegia. Zaraitzuera - Euskara Batua / Euskara Batua – Zaraitzuera” 2001. Egilea: Aitor Arana. Hiria argitaletxeak eta Nafarroako Gobernuak argitaratua.

Zaraitzuko uskarara. Zaraitzuera ikasteko liburua 2002. Aitor Arana. Hiria argitaletxeak eta Nafarroako Gobernuak argitaratua.

Erronkariera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Estornés Lasa, B.: *Erronkariko uskararen hiztegia*.

Nafarroako Gobernua. 1997.

Baztanera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko Goi-Nafarrera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Izeta, M.: *Baztango hiztegia*. Nafarroako Gobernua. 1996
Salaburu, P: Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia. EHU. 1984.

Gipuzkera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Gipuzkera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Erdozia, J.L.: *Sakana erdialdeko euskara*. Nafarroako Gobernua. 2002.

Maiz, E.; Mundiñano, I.;; *Etxarrieratik sakanerara*. Nafarroako Gobernua. 1998.

Lapurtera eta behe nafarrera

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Lapurtera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko Behe-nafarrera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

Pagola, R. M.; Iribar, I. e Iribar, J.J.: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Mendebaldeko Behe-nafarrera*. Deustuko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzak argitaratua.

